

Goizetik txigortuta

Itzea URKIZU
ARSUAGA

Zientzia bat da tostadak bere puntuan txigortzearena; konfiantzazko harremana eskatzen du ogi-motaren, txigorgailuaren eta gosaltziarraren artean. Plazer txiki bat ere bada, gosariko gainerako gauzak prestatzen dituzun bitartean, txigortze horren lehen zantzuak usaintzen hastea, harik eta gailuak, susto txiki bat eman ez, bere lanak amaitu dituela jakinarazten dizun arte.

Nahiago nuke txigorgailuarenak bala goizetako ezusteko bakarrak. Gurean, beste askorenean bezala, goiz guztiek baitituzte pieza berberak –pijama, gosariak, hamaiketakoak, motxilak, galtzerdiak, musu-garbitzeak, arropa jakin baten aurkako konplotak,

azken orduko kakagurak–, puzzlea sekula berdin ateratzen ez den arren.

Zuk josi dezakezu, bezperako gauean, biharamunerako planik errealistena eta zuhurrena, baina, kasurik gehienetan, ahalegin antzua izango da: beti gertatuko da zerbait, zuhurtzia gainbaloratuta dagoela berresteko. Eta, ogiaren txigortze-puntuarekin bezala, hemen ere bada zientziarik, ekuazio bat beti: zenbat eta goizago esnatu haurrak, orduan eta berandua go iritsiko zara.

Tira, halako batean irten gara. Seme zaharrenaren hanka laburrek senez markatuko luketena baino askoz ere erritmo biziagoan goaz eta, hala ere, ez da kexatzen. Zubitik begiratzen diot Oriia ibaiari, goizetan bereziki eder

egon ohi denari: arnasa sakon hartze-ko baliatzen dut begirada, goizetan naizen presaren pertsonifikazio honekiko enpatia bila-edo.

Paradoxikoki, erlojuak alferrikako dira eszenatoki kronometratu honetan: bidean topatzen dudak jendearen arabera, badakit garaiz ala larri ote nabilen, eta nire egonarria ere horrek erregulatu ohi du.

Bat-batean, azken txanpan semeari animoak ematen ari naizela, galdera bat: «Amatxo, gu ez gara inoiz hilko? Nik hemen bizi nahi dut hiltzen naizen arte». Eta pentsatu dut nor ote naizen ni lau urteko haur bati heriotza zer ote den azaltzeko, sarri bizitza bera sosegu gehiagoz digeritzeko talenturik ez baldin badut. •

Taka-takaz etorri den postala

Miren AZKARATE
BADIOLA

Amak oportetara doan aldiro ohitura zahar bati eusten dio: postala idazten du. Ez niri, amona titulua duenetik ni “rangoz” jaitsi bainaiz, bilobei idazten dizkie aipaturiko postalak.

Ohitura zaharra dela diot, iruditzen baitzait oso jende gutxi idazten dituela jada postalak edo gutunak. Baina niri, behintzat, galdu ezin dugun ohitura polit bat dela iruditzen zait, eta hori helarazten saiatzen naiz era berean nire hurrei. Teknologia berriek komunikazioa bat-batekoa bihurtu du eta, tira, ongi dago. Baina bata ez

luke bestea kendu behar. Laster giza-kiari ahaztu egingo zaio zer den boligrafo bat hartu eta folio zuri baten aurrean jartzea! Susmoa dut AA-ri (Adimen Artifizialari) datu eta algoritmo batzuk esan eta ez dutela gutuna idatzi ere egingo!

Baina gaurkoan erabat asaldatua naukana da Lisboatik (eta ez postontzi batetik, e? Correos-eko bulegotik) etxera postal horrek bidean eman dituen egunen kopuruak. Zehazki 31 egun!! Amak esana, gainera, nahita ez zutela postontzira bota eta hango Correos-eko bulego batetik bidali zutela. Penin-

tsula Iberikoaren barruan hilabete pasatxo... ÑO! Eta gero Amazon bidez Txinara zerbait eskatu eta ordu gutxitan etxean duzu eskaria. Ezin dut ulertu! Edo hobe esanda, ulertzen dut, baina ez zait gustatzen.

Amonak astebete egin zuen oportetean, eta postalak, ez dakigu non, baina portugaldar langileak pista bat emanda, Madrilan hilabeteko egonaldia egin du.

«Noiz iritsiko da amonaren postala? Gaur ere ez da iritsi?». Bada, ez, ohitura zaharra nahita ari dira zahartzen uzten. Taka-takan dator, baina postalak eta gutunak idazten jarraituko dugu. •